

LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

2021eko EKAINAREN 24an, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA

2021eko ekainaren 24an, arratsaldeko 15.30 orduetan, Maite Arana Perez Alkate andrearen Lehendakartzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira eginiko bilkura honetan.

ZINEGOTZIAK:

Vicente Garcia Momblona
Jose Antonio Rodriguez Rodriguez
Mireia Ruiz Delgado
Maialen Alonso Labandibar
Jesus Maria Tejada Cantero


BERE EZIN ETORRIA AZALTZEN DU: Aitor Beistegui Fiallegas zinegotzia.

Bertan dago, egintzaz fede emateko Ane Gomez Urteaga Idazkari-kontuhartzailea.

...//...

Alkate-lehendakari andreak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ondoren adierazten den Udalbatzarretako akta onestu, hala badagokio/ Aprobación, si procede de la siguiente acta Plenaria:
➤ 2021eko maiatzaren 27an egindako ohiko bilkura/ Sesión ordinaria de fecha 27 de mayo de 2021.**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea/ Dación de cuenta de los decretos de Alcaldía.**
- 3. Fakturak eta ordainketak/ Pagos y facturas.**
- 4. Kreditu eragiketaren proiektua onestea, hala bada/ Aprobación, en su caso, del proyecto de operación de crédito**
- 5. Tokiko Energia Komunitate bati (TEK LARRAUL) zuzendutako energia sortzeko plaka fotovoltaikoak instalatzeko udal titulartasuneko higiezinaren azalera lagatzea onartzea. / Aprobación de la cesión de superficie en inmueble de titularidad municipal para la instalación de placas fotovoltaicas de generación de energía destinada a una Comunidad Energética Local (TEK LARRAUL).**
- 6. Larraulgo udal pilotalekuko kanpoko arotzajeak hornitu eta jartzeko obren kontratua kontratatzeko espedientea, baldintza administratibo partikularren agiria eta baldintza teknikoak onestea, prozedura ireki erraztuaren bidez eta tramitazio**



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

arruntaren bidez./ Aprobar el expediente de contratación, Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares y condiciones técnicas, mediante procedimiento abierto simplificado, tramitación ordinaria, del contrato ejecución de las obras de suministro y colocación de las carpinterías exteriores del frontón municipal de Larraul.

- 7. Larraulgo baserriak seinaleztatzeko kontratua esleitzea./ Adjudicación del contrato de señalización de caseríos de Larraul.**
- 8. Larraulgo Udalak haur eta nerabeen aisialdi hezitzaileko ekintzak burutzeko COVID-19aren prebentzio eta kontrolerako hartuko dituen neurriak eta ezarriko duen protokoloaren onespena./ Aprobación del protocolo y medidas que el Ayuntamiento de Larraul adoptará para la prevención y control del covid-19 para la realización de actividades de ocio educativo para niños, niñas y adolescentes**
- 9. Beste batzuk/Otros.**
- 10. Erregu, galderak eta mozioak/Mociones, ruegos y preguntas.**

LEHENENGO PUNTUA

ONDOREN ADIERAZTEN DIREN UDALBATZARRETAKO AKTAK ONESTU, HALA BADAGOKIO

- ▣ 2021 urteko apirilaren 29an egindako Udalbatzaren ohiko bilkurako akta. Irakurri ondoren aho batez onesten dute.
- ▣ 2021 urteko apirilaren 30ean egindako Udalbatzaren ez ohiko bilkurako akta. Irakurri ondoren aho batez onesten dute.

BIGARRENGO PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA


Ondoren, Udaleko Idazkari-Kontuhartzaileak adierazten du 57/2021etik 63/2021era Lehendakari Ebazpenak eman direla. Bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik.

HIRUGARRENGO PUNTUA

FAKTURAK ETA ORDAINKETAK

Alkate-Lehendakari andreak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

ZU ETA BIOK	1.189,83
TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	741,48
TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	850,99
TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	983,13



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

NATIONAL PEN	116,16
GILBE	87,02
ELHUYAR	20,00
MUSICOS UNIDOS SIGLO XXI	464,81
VICENTE ERROTULAZIOA	130,68
IÑAKI ESNAL	100,00
IÑAKI ESNAL	100,00
ONBIZI	982,52
LASURTEGUI ATXEKI	220,22
BABESA SUZAI	194,53
BABESA SUZAI	253,13
DIONISIO ORMAZABAL	146,72
KIROLZER	22,85
MAQUELSA	45,34
EBA ERKIZIA	447,83
ERROITZ	91,98
ITZIAR UZKUDUN	112,5
MELLIFERA	1.303,96
GUREAK MARKETING	4,01
IBERDROLA	31,59
IBERDROLA	177,07
IBERDROLA	67,02
IBERDROLA	207,93
IBERDROLA	2,36
IBERDROLA	10,62
IBERDROLA	9,05
IBERDROLA	4,50
IBERDROLA	162,76
TELEFONICA	51,50
TELEFONICA	0,18
TELEFONICA	127,55
TELEFONICA	97,41

Udalbatza honek, **ahoko batez** hurrengoak,


ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **9.559,23** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

LAUGARRENGO PUNTUA

UDAL BIDEKO TARTE BATEN DESAFEKTAZIOAREN HASIERAKO ONESPENA, BIDE HORREN TRAZADURA ALDATZEKO

Ikusirik GABARIYO-ALDECO-SORO eta GOIKO SORO alderdietako ekialdean dagoen udal bidearen tartea desafektatzeko izapidetu den



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

espedientea, katastroko erreferentzia 1 poligonoa, 335 lurzattia duena, Irazu-Muñoa familiaren jabetzako finkan eginiko bide berriaren ordez horren trazadura aldatzeko.

Udal zerbitzu teknikoek maiatzaren 26an emandako txostena erantsi zaio espedienteari.

Jabari publikoaren desafektazioa egokitzat jo da, Aginazabal Handi eta Aginazabal Txiki baserrietatik igarotzen zen gurdibide zaharraren ordezko trazadura berri bat eraiki baitzen 1983an Irazu-Muñoa familiaren finkan, erabaki honen helburua, Udalaren bidearen trazadura zaharra aldatuko da, titulartasun partikularreko lurretan egin den trazadura berriarekin trukaturik. Hala, trukearen beharra egiaztatu da, Irazu familiaren jabetzako lurretan trazadura berri bat egin baitzen, Aginazabal Handi eta Aginazabal Txiki baserrien inguruan zegoen gurdibidea ordezkatuz eta erabilera gabe utziz.

Kontuan harturik erabat frogatuta dagoela desafektazioa egokia dela, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 81.1 artikulua eta Toki Entitateen Ondasunen Erregelamendua onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuaren 8. artikulua eskatzen dutenaren arabera.

Idazkaritzaren 2021eko maiatzaren 24ko txostena ikusi da. Bertan adierazten da erabakia Udalbatza Osoak gehiengo osoz hartu beharko duela, baita erabilera publikoa desafektatzeko jarraitu beharreko prozedura ere.


Gaia aztertu ondoren, Udalbatza Osoak, aho batez,

ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- Hasiera batean onestea, Katastroko 1 poligonoko 335 lurzatiaren, hau da, Gabariyo-Aldecosoro eta Goiko Soro lurren ekialdean dagoen udal bidearen zati bat desafektatzea, Irazu-Muñoa familiaren jabetzako finkatik bide horren trazadura berria pasatu delako, bi bideen arteko trukaketa ginez, arrazoi hauek direla medio:

-Desafektatu nahi den gurdibide publikoa Gabariyo-aldeco-soro eta Goiko Soro izeneko lurraren ekialdean dago, hau da, Aginazabal Handi baserriaren jabetzako den 1. poligonoa, 335. Lurzatiaren ekialdean. Jabetza hori, Tolosako Jabetza Erregistroaren arabera, gurdibide publikoarekin elkartzen da.

- 1983an, desafektazio honen xede den gurdibide publikoaren ordez, Gabariyo-aldeco-soro eta Goiko Soro (1. poligonoa, 335. lurzattia) zeharkatzen dituen beste herri bide bat eraiki zen, lehengo gurdibide publikoa erabilerarik gabe utziz.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

-1983an, bide publikoaren trazadura berria egitean, ez zen gurdibide zaharra desafektatu eta egungo bide publikoarekin trukatu. Beraz, orain, Irazu-Muñoa familiak egin du eskaera hori.

BIGARRENA.- Hartutako erabakia jendaurrean jartzea hilabetez, Probintziako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki-taulan iragarkiak jarritz, interesdunek erreklamazioak egin ditzaten.

BOSTGARREN PUNTUA

2021 URTERAKO UDAL LANGILEEN OPOR EGUTEGIEN ONESPENA

Idazkari-Kontuhartzaile andreak Larraulgo udal langileen 2021 ekitaldirako opor egutegiak aurkeztu ditu.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: 2021 urterako Udal langileek aurkezturiko opor egutegiak onartzea.

SEIGARREN PUNTUA


LARRAULGO UDAL PILOTALEKUKO EGOKITZE LANEN KONTRATUA KONTRATATZEKO ESPEDIENTEA, BALDINTZA ADMINISTRATIBO PARTIKULARREN AGIRIA ETA BALDINTZA TEKNIKOAK ONESTEA, PROZEDURA IREKI ERRAZTUAREN BIDEZ ETA TRAMITAZIO ARRUNTAREN BIDEZ

Kontuan harturik, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 28. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, Alkatetza honek beharrezkotzat jotzen duela udal mugape honetako udal pilotalekua egokitzeko obrak egiteko kontratua izapidetzea.

Ikusirik Udalaren Zerbitzu Teknikoen txostena, haren alderdi teknikoak eta jarduketa horren bideragarritasuna zehazten dituen, lizitazioa arautuko duen dokumentazio teknikoan jasoz.

Kontuan hartuz, 2021eko ekainaren 15eko Alkatetzaren Ebazpenaren bidez, obren dokumentazio teknikoa onartu zela, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 236.1 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritz (2017SPKL).

Ikusirik kreditu atxikipena, aurrekontuko 1.0000.622.342.00.01 aplikazioaren kontura, 102.576,64 eurokoa, tramitatu beharreko zerbitzuen kontratuaren balio zenbatetsia.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusita obraren zuinketa-akta, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (SPKL 2017-) 236. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako.

Ikusirik Udal honetako Idazkaritzak emandako txosten juridikoa.

Ikusirik kontratu hori arautuko duten administrazio klausula partikularren orriak onartu direla.

Ikusirik Udal honetako Kontu-hartzailetzak egindako fiskalizazioa.

Ikusirik, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen Bigarren Xedapen Gehigarrian ezarritakoarekin bat etorritz, Udalbatza dela kontratazio organo eskuduna.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENENGOA.- Larraulgo udal pilotalekua egokitzeko lanak egiteko kontratua prozedura ireki erraztuaren bidez eta tramitazio arruntaren bidez kontratatzeke espedientea onartzea. Kontratuaren balio zenbatetsiari 84.774,08 euro dagozkio, eta 17.802,56 euro jasanarazi beharko zaizkio, Balio Erantsiaren gaineko Zergari dagozkionak, eta 16 asteko egikaritze-epea.

BIGARRENA.- Larraulgo Udalaren 2021. urteko gastuen aurrekontuko 1.0000.622.642.00.01 aurrekontu-aplikazioaren kargura 102.576,64 euroko gastua onartzea.


HIRUGARRENA.- Obra kontratu hau prozedura ireki erraztuaren bidez kontratatzeke baldintza administratibo berezien agiria onartzea.

LAUGARRENA.- Kontratu hau prozedura ireki erraztuaren bidez esleitzeko prozedurari hasiera ematea, eta kontratazio-organo honen kontratatzailearen profilean dagokion lizitazio-iragarkia argitaratzeko agindua ematea, hoguei eguneko epean egoki iritzitako proposamenak aurkez daitezzen. 2017 SPKL 159.3).

ZAZPIGARREN PUNTUA

LARRAULGO MUSEO ETNOGRAFIKORA EGINGO DIREN BISITEN TASEN ONESPENA

Ikusita, 2021 urterako Ordenantza fiskaletan ez dagoela aurreikusita Larraulgo Museo Etnografikora egingo diren bisiten ordainketari buruzko tasik.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik, Larraulgo Museo Etnografikora bisitak, epe motz batetan egiten hasi nahi direla.

Hauek horrela, proposatzen da Larraulgo Museo Etnografikoara egingo diren bisitei, 2,00€ pertsonako tasa bat finkatzea.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: 2021 urteko Ordenantza fiskaletako TASA-tan ondorengo aldaketa onestea:

Larraulgo Museo Etnografikora egingo diren bisitak, 2,00€ pertsonako tasa bat ordaintzeko onespena ematea.

BIGARRENA: Erabakitakoaren berri udal iragarki taulan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz ematea, 30 laneguneko epea irekiz edonork espedientea aztertu eta erreklamazioak edota iradokizunak aurkezteko, bere kasuan. Erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, hartutako erabakiak behinbetikoz onartutzat emango dira beste erabakirik hartu gabe.

ZORTZIGARREN PUNTUA

01/2021 KREDITU ALDAKETAREN HASIERAKO ONESPENA


Larraulgo Udal honetako Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Idazkari-Kontuhartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Gipuzkoako Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Eztabaidatu ondoren, Udalbatza honek, aho batez, honako hau

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Larraulgo Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko kapitulukako laburpenaren arabera:




LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

KREDITU GEHIGARRIEN PROPOSAMENA

Udal zerbitzuek dituzten premiei eta obligazioei aurre egiteko, beharrezkoa da hainbat gastu berehala egitea. Izan ere, horiek atzeratuz gero sortuko litzatekeen kalteak eragin nabarmena izango luke zerbitzuen kalitatean. Aurrekontuaren exekuzioaren arabera, ordea, gastu partidetan ez dago nahiko krediturik aipatutako gastuei aurre egiteko. Ondorioz, kredituak sortzeko edo, hala badagokio, gehitzeko proposatzen da, ondoko taulako xehetasunaren arabera:

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0000.643.336.00.01 2021	INDUSKETAK	1.000,00	500,00	1.500,00
1 0000.226.920.00.01 2021	AHOLKULARITZA	100,00	5.900,00	6.000,00
1 0000.685.933.00.01 2021	INBERTSIOAK: HERRI OSTATUKO MOBILIARIOA	1.500,00	500,00	2.000,00
1 0000.226.337.20.06 2021	JARDUERA KULTURALAK: UDALEKUAK ETA JARDU	5.000,00	2.590,00	7.590,00
1 0000.601.153.20.01 2021	AZPIEGITURA ETA URBANIZAZ: BASERRI BIDEA	0,00	13.900,00	13.900,00
1 0000.227.153.40.07 2021	AZTERK.ETA AHOL.ZERBIT: PREBENTZIOA.BRI	510,00	800,00	1.310,00
1 0000.622.323.00.01 2021	ZERB.FUNTZION.INBERTS: HAURRESKOLA	0,00	130,00	130,00
1 0000.210.164.00.01 2021	AZPIEGIT.ETA OND.GAST.HILERRIA	100,00	50,00	150,00
1 0000.210.933.00.01 2021	AZPIEG.ETA ONDAS.GASTUAK: OSTATUA	120,00	250,00	370,00
1 0000.626.920.00.01	ZERB.FUNTZION.INBERTS:	0,00	840,00	840,00



LARRAULGO UDALA


(GIPUZKOA)

2021	ORDENAGAILUA			
1 0000.626.333.00.01 2021	KULTUR-ETXEKO PROIEKTOREAREN LANPARA	0,00	250,00	250,00
1 0000.210.920.00.01 2021	AZPIEGIT.ETA OND.GAST.UDALETXEA	600,00	1.160,00	1.760,00
1 0000.226.231.50.05 2021	BERDINBIDEAN PROGRAMA	500,00	800,00	1.300,00
1 0000.226.231.50.06 2021	EMAKUMEEI ZUZENDUTAKO JARDUERAK	500,00	1.600,00	2.100,00
1 0000.622.342.00.01 2021	ZERB.FUNTZ.INBERTS: PILOTALEKUKO KONPONK	80.000,00	23.000,00	103.000,00
1 0000.210.333.00.02 2021	AZPIEG.ETA ONDASUN GASTUAK: MUSEOA	0,00	560,00	560,00
GUZTIRA		89.930,00	52.830,00	142.760,00

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
c	2 0000.720.153.20.01 2021	DIPUTAZIOA: BASERRI BIDEAK	9.030,81
a	2 0000.870.000.00.01 2021	GERAKINAK	43.799,19
FINANTZAKETA GUZTIRA			52.830,00

BIGARRENA: Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

BEDERATZIGARREN PUNTUA



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

BESTE BATZUK

Ez dira aurkezten.

HAMAIKAGARREN PUNTUA
ERREGU, GALDERA ETA MOZIOAK

Ez dira aurkezten.

Beste gairik ez dagoenez, arratsaldeko 16:54 orduak direnean Alkate andreak bilera amaitutzat ematen du, nik, behin-behineko Idazkaria naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.